







Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

09/10/16 | 310

-  Alegiako haur-eskola atek zabaltzeko prest
-  Moxtone, 1900. urtetik zabalik
-  Komunikaziorako garaia
-  Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen 3 saioak
-  Jesus Mari Mujikari elkarrizketa
-  Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...

Alde Zaharra
zaharberitzen



berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa

Tel.: 943 653 307

Tel. / Fax: 943 650 520


E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa

Tels.: 943 672 620 / 943 675 977

Fax: 943 675 421

E-mail: berogas@berogas.com



aldama_tapia

aholkularitza

Foruen Etorbidea_7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel_943 650 375
Faxe_943 655 206
gtolosa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

2
betaurreko
kristalak barne
97€

2
konbinatu
2
mó

J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 29 95

ARRASATE

Ibanzarai 16
Tel. 943 76 15 75

BERGARA

C/ Nueva 15 - GROS
Tel. 943 32 66 49

DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 20 05 22

EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11

ERRENTERIA

Mendibil M. G.
Tel. 943 63 99 01

IRUN

J.M. Barandiaran Erp.
Tel. 943 88 99 88

ORDIZIA

San Frantzisko 23
Tel. 943 66 84 70

TOLOSA



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbegozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igarua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Angela Alamo
 Banatzaileak: Olatz,
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: SS-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
 Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
 diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia: Alde Zahar biziago baten alde

Tolosako Alde Zaharra birgaitu eta berpiztea; helburu honekin jarri zen martxan 2000. urtean Erretengibel zerbitzua. Etxebizitza eta lokalak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzak eta Udalak bideratutako diru-laguntzak kudeatu ditu orain arte. Egun ordea, banaketa hori egiteaz gain, Erretengibel, Alde Zaharrak behar duen birgaitze prozesuan agente aktibo bihurtu da. Udaleko hirigintza sailarekin elkarlanean, Alde Zaharreko plan berezia zuzentzen ari dira.

8-11. orrialdeak

«Mezua plazaratzeko garaian, gero eta bertso beteagoa egiten da. Betelan gutxiago egiten da. Gero eta mezu finagoak, landuagoak, datoz. Entzuleak bezalaxe bertsolariek ere informazio gehiago maneiatzen dute, gero eta publiko zabala-goarengana iristea lortzen da».

Elkarrizketa: Xabino San Sebastian 16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Txomin Garmendia eta Jon Azpiroz	4-5
	Normalizazioa: Adunako enpresetan euskara bultzatzeko plana	6-7
	Eskualdeko albisteak: Alegiako haur-eskola laster martxan	12-13
	Eskualdeko albisteak: Moxtone, 1900. urtetik zabalik	14-15
	Zintzilik: Komunikaziorako garaia	19
	Bertsolari Txapelketa Nagusia: lehenengo hiru saioen kronika	20-21
	Kirol salta: Jesus Mari Mujika aizkolariarekin solasean	22



Txomin Garmendia
Bertsolaria

4

Irakurle, aitormen batzuk egiteko artu nai nuke Galtzaundik uzten didan tarte au; 1983an asi nintzan D.V. egunerokoan idazten; naiko ezjakin eta bildurri asi banintzan ere, trebatzen joan nintzan, nere jakinduriak mugatuak ziran arren.

Illeko ogeita bi idazlan argitaratzera iritsi nintzan, balio geiegi ez bazuten ere; orduko zuzendari zan Larrea jaunak ixtimatua nindun; Baserriren ordezeko izango nintzala-ta, orrelako aitamenak egiten zizkidan beintzat. Gaiak, berriz, errietako jaiak, apustuak, txapelketak, kinto-billerak eta abar, erabiltzen nitun. Denboraz asi ziran gure etxera albisteak iristen: apusturen bat zala, errietako jaiak zirala, kinto-billera zala eta abar. Jokabide oiekin jabetzen nintzan irakurleak banitula, lotura puska bat ematen zidaten arren pozik jarduten nintzan. Soldatutxoia ere pagatzen zidaten eta gustuko lekuan aldaparik ez.

Gero, beste batzuk ere sartu ziran gure sail ortara, eta danon artean euskerari leku puska bat ematen geniola esango nuke.

Ala jarraitu gendun urte batzuetan, baiña idazleak ugaltu ziralako-edo astean bein argitaratuko zala nere idazlana esan zidan gure kargu egiten zuenak. Pozik artu nun albiste ori, denbora gauza ederra baita idazlanerako ere: askok ala uste ez duten arren.

2007ko otsaillean uste ez nun beste albiste bat jaso nun D.V. orreatatik: ostegunero argitaratuko zala euskal-orrialde ori eta lau idazle izango giñala: Aita Antonio Zabala, Manuel Lasarte, Nikolas Zendoia eta idazten ari zaizutena. Amobos aldiro argitaratuko zala baikoitzaren lana eta neri, egitarauak, kirol kontuak, kinto billerak, au da, jorratze nitun gai

Aitormen batzuk

danak galerazi egin zizkidaten. Andik aurrera, "Oroitzapenak" bakarrik idatzi bear nitun. Pena ederra artu nun, baiña agintzen dunaren ondoan ixillik egon bear.

Gero, beste batzuk ere sartu ziran gure sail orretara: Joxemari Lertxundi, Patxiku Perurena eta abar, eta gure amabos aldi ori luzatzen asi zan. Aita Zabala il zan (G.B.), Lasartek utzi zion, ala ere, azken iru illabetetan idazlan bat bakarra argitaratu dute nerea.

Irailaren 28an jaso nun itxaro nun albiste: nere idazlanik etzutela geiago bear alegia, eta orrialde ori iru astetik bein argitaratuko zala eta Nikolas Zendoiak bakarrik beteko zula. Beraz, ni ezezik beste batzuk ere utzi ditu kanporatuta eguneroko orrek.

Norbaitek esan lezake, gaurko berriak jakiteko ez dagoela gure bearrik; ez noski; edozein egunerokok ekartzen ditun berri asko, bezperatik jakinda egoten gera irrati eta telebistan bidez; ala ere, egunerokoa erostera goaz. Bestetik, gure apustu, norgeiagoka eta jaialdiak euskera erriko batean argitaratzea ez ote dute merezi?

Beraz, ogeita sei urte igaro ondoren agur egingo diot D.V. egunerokoari; eta zerbait gaitz egin badet barkamena eskatzen det, alako asmorik gabe egindakoa izango da-ta.

Galtzaundi tolosar onek ametitzen naun bitartean, eta ondo naizela, jarraitu nai nuke nere berriketaldi auekin ordea.

Krisi garaian, barrukoak du garrantzia, eta ez kanpokoak

Baina bada errealidade bat, herri guneeetan krisi garaian Zapatero salbatzailea etorri eta dirua ekarri du zenbait inbertsio edo obra edo azpiegiturak egiteko, udalek dirurik ez baitute eta Zapaterok guztion diruak bildu, PLANA egin eta hara! Tolosara zubia ekarri du, Parte Zaharreko kaleak altsatu, Musika eskolako fatxada naranjaz pintatu eta ibaira puzgarriak ekarri ditu. Auzo eta landa eremu "txikietan" aldiz, ez dira nonbait beharrik ikusten eta gutxiago obrak iragartzen dituzten kartelak.

Zer esango dugu? Zenbait obra beharrezkoak direla eta ondo daudela krisi garaian ere haiei erreparatzea eta Zapateroren diruarekin zenbait herritako plaza, ur eta argi hornidurak berri eta zenbait espaloi txukundu dira.


Gizakiarekin konparaketa batzuk eginez gero, honakoa litzateke: Ur, argi eta saneamendu obrak gure gorputzeko zainak bezala lirateke eta zaindu eta berrikerik ez balego, odola eta beharrezko gaiak oztopatu eta gure gorputza, herria, geratuta geldituko litzateke. Beste obra batzuk mugikortasuna adierazten dute, gorputzaren zenbait organoaren zainketa bezala herrian hobeto mugitzeko, horra hor zubiak, espaloiak, parkeak... Arnasketarekin lotu ditzazkegu eta beste batzuk aldiz estetikarekin.

Estetika edo apainketa beharrezkoa da gizabanakoarentzat noski, baina krisi garaian funtzionalitatea eta osasunari erreparatu behar diogu eta gutxiago apaingarritasunei.

Bedaion apaingarriak bai, baina garrantzitsuagoak ditugu gure gorputza funtzioan izango duten espaloiak jolasparkeak, aparkalekuak, ur eta elektrizitate hornidura txukunak... Bueno... ez dugu jarraituko. Beti kontu berdinekin baikauden baina badakizue irakurleok, negarra egin behar da min daukazunean eta nonbait estetika premiazkoa ikusten denean are eta gehiago.

Bedaion krisia ez dugu somatzen, krisi aurretik eta krisi garaian inbertsio aldetik ez baitago alderik. Honek ez du esan nahi azkeneko urteetan pausu desberdinak eman ez direnik, kontrakoa; apaingarriak baino gorputza osatzeko planak behar ditugu. Gaur egun Bedaioko bihotza fuerte eta sano dago, laister beste Bedaiotar bihotz txiki bat etorriko da eta honek ere indarra emango digu.

Baina begirunea eskatzen dugu, krisi garaian eta krisia pasa ondoren, noizbait pasako da eta, Bedaioko gure gorputza txukuntzen joateko, bihotzak bestela lan handia egin behar baitu eta azkarrago nekatu egingo baita.

Ez dakigu beste Zapatero, Lopez edo Olano planik egongo den baina edonolako laguntzarik jaso baino lehen pentsa dezagun herriaren osasunerako eta etorkizunerako baliagarriak diren behar organikoak eta utzi apaingarriak garai hobekoak etortzen direnerako, kanpoko itxura ederra bada ere, barrutik gaixorik bagoaude jai dugu eta. 



Jon Azpiroz

Bedaioako Artubi Elkarteko kidea

Krisia, krisia eta krisia besterik entzuten ez den garai honetan badira aurrera jarraitzen duten ekitaldiak eta proiektuak. Zenbat famili dabil gaizki pasatzen? Landa guneeetan ere krisia ederki somatzen ari da, bakoitzaren tragediaz aparte, sagarrek, gaztainedek, arraultzek eta oiloek jabeak dituztelako, eta nonbait, jabeek ez beste batzuek biltzen dituztelako. Azerien kontrako hesiak ondo jarrita daude, baina beste animalia bizkor batzuk etortzen dira.

Adunako udalak abian jarri du enprese

Adunako Udalak herriko enpresetan euskararen erabilera sustatzeko plana jarri du abian, Galtzaundi Euskara Elkartearekin sinatutako hitzarmen baten bidez. Plana asmo handikoa da, herriko 90 enpresa sartuko baitira egitasmoan: lehenengo, udalak gutun bat bidaliko die enpresei, udalerrri euskaldunetan lan munduak ere euskararen aldeko neurriak hartzeak duen garrantziaz sentsibilizatzeko, eta, gutunak bidali ondoren, Galtzaundiko teknikari bat harremanetan jarriko da enpresetako arduradunekin, bisita bat egin eta enpresan euskararekin zer-nola jokatzeko duten neurtzeko. Prozesu horretan Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) hizkuntz normalizatzaile batek ere laguntza emango du.

Helburu nagusia 2009. urtea amaitu aurretik enpresei hartu-emanetan jartzea eta euskararen erabilera neuritzea da, aurrerantzean udalak eskain ditzakeen laguntzak enpresen egoeretara ahalik eta egokituena izateko. Printzipioz, gutunak bidaltzea

eta enpresaz enpresa bisitak egitea egitasmo luzeago baten aurreneko urratsa izango da, baina urte bukaera aldera egitasmoaren bultzatzaileek emaitzak baloratuko dituzte; tartean, bestelako faktore batzuek duten eragina (krisialdiak, adibidez).

erabaki baitu, plan partzialen bidez.

Adunako Udalak konpromiso ugari hartu ditu euskararekin: UEMAn sartzeaz gain, barne erabilera planak onartu eta abian jarri ditu, merkatarien artean euskarazko materiala banatu du, bestelako



Arantza Aburuza Adunako alkatea eta Nora Olano Galtzaundiko teknikaria

Enpresekin ez du inoiz horrelako lanketarik egin Adunako Udalak, baina Galtzaundirekiko hitzarmena ez da zerotik abiatuko; izan ere, Adunan badira dagoeneko euskararen aldeko neurriak hartzen hasita dauden hainbat enpresa. Esate baterako, 6 enpresak Bai Euskarari Zirutagiria dute, eta beste batzuek, ziurtagiririk ez duten arren, euskara aldeko apustua egin dute hainbat zereginetan. Gainera, etorkizunera begira, Adunako Udalak erabaki garrantzitsuak hartu ditu, oraindik eraiki gabeko industriaguneetan errokulazioa euskaraz edo ele biz jartzea

kanpainak ere bultzatu ditu... Nolanahi ere, orain arte hankamotz geratu da enpresekiko lanketetan, nahiz eta enpresek ikaragarri baldintzatu herriko bizitza. Hartara, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren baitan, lan munduan eragiteko plana onartu du.

Horrenbestez, Adunako Udalak eta Galtzaundi euskara elkarteak dei egin diete herriko enpresei Galtzaundiko teknikariari erraztasunak emateko eta euskararen aldeko neurriak hartzeko, Adunako euskararen normalizazioan urrats garrantzitsuak delako.

Adunako 90 enpresetan gauzatuko da egitasmoa, Galtzaundik eta Adunako Udalak sinatu duten hitzarmenaren arabera

tan euskara bultzatzeko plana

Kultur ekitaldiak

Urriak 29
Iosu Iztueta
diaporama emanaldia:

Yukon ibaia Kanoaz.

20:00etan Tolosako kultur etxean



Urriak 29
Idoia Sanchez

Ikaztegieta
17:00etan liburutegian.

Baliarrain
18:30etan kultur gelan.



**BENTA
ALDEA**
JATETXEA

TEL.: 943 654 079
ANOETA
-TOLOSA BIDEAN

T X O K O L A T E G I A



K A F E T E G I A

Uli

Meriendak, txurroak

Nafarroa, 1 • TOLOSA
Tel.: 943 651 830

II. Ibarra Galtzakomik
Komiki Lehiaketa

Lanak aurkezteko epea azaroaren 10era arte hemen:

Galtzaundi Euskara Taldea
Nafarroa Etorbidea 6, behea
20400 Tolosa

Lehiaketaren oinarriak www.galtzaundi.com webgunean



**shanti
kirolak**

Rondilla, 11 bis
Tel.: 943 674 074
Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113



**errotatxo
okindegia**

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

Azken legegintzaldian Erretengibel zerbitzua indartu egin da; egun, Alde Zaharra biziberritzeko agente aktiboa da

Erretengibel

Alde Zahar biziago baten alde

Leire Zubeldia

8

Tolosako Alde Zaharra birgaitu eta berpiztea; helburu honekin jarri zen martxan 2000. urtean Erretengibel zerbitzua. Etxebizitza eta lokalak birgaitzeko Eusko Jaurlaritzak eta Udalak bideratutako diru-laguntzak kudeatu ditu orain arte. Egun ordea, banaketa hori egiteaz gain, Erretengibel, Alde Zaharrak behar duen birgaitze prozesuan agente aktibo bihurtu da. Udaleko hirigintza sailarekin elkarlanean, Alde Zaharreko plan berezia zuzentzen ari dira.



Tolosako Alde Zaharrea, duela 25 urte baino etxebizitza eta lokal gutxiago daude martxan; baina duela 10 urte baino gehiago. "Zaila da duela 25-30 urteko okupazio mailara iristea. Bizimodua, eta bizitza-ohiturak asko aldatu dira", adierazi du Jon Aldazabal, Erretengibeleko lehendakariak. Zerbitzuaren helburuak, alde batetik "etxebizitzaren bizigarritasun maila hobetzea, eta ondorioz populazio maila igotzea", eta bestetik, "komertzioaren aktibitate maila mantentzea", dira.

Jaurlaritza eta Udalaren diru-laguntzak

Erretengibelen ardura da Eusko Jaurlaritzak bideratutako diru-laguntzak kudeatzea. Horretaz gain, EAEko Gobernuak etxebizitza hutsak merkatura ateratzeko martxan jarri duen Bizigune programaren kolaboratzaileak dira. Udalak ere diru-laguntza eskaintza garrantzitsua bideratzen du alor honetara. "Diru-laguntza hauen zati bat etxebizitzak, eraikuntzak eta lokalak birgaitzera bideratzen da. Beste zati bat, hutsik dauden lokalak alokairuan hartzekodunentzat izaten da. Azkenik, badira elektrizitate instalazioak berri edo eta su itzalgailuak jartzeko laguntzak ere".

2000. urtetik gaur arte 1.200.000,00 euroko diru-laguntza eman du Erretengibelek etxebizitza eta lokalak birgaitzeko. "Eraikuntzetan, eraberritze lanak elementu komunetanegitendirenean (fatxada, teilatua...), gutxiene-

2007tik gaur arte 22 komertzio berri zabaldu dira. 130.000 euro bideratu ditu lokalak alokairuan hartzeko dirulaguntza programak.

ko aurrekontu bat izanez gero, gastuaren %15a ematen dugu gutxienez, eta %25a gehienez. Eremu partikularrean berriz, etxe-jabearen irabaziaren eta obraren aurrekontuaren araberakoa izaten da laguntza". Guztira, eraikuntzak birgaitzeko 148 expediente jaso dituzte eta eremu partikularrekoak 79 izan dira. Guzti hauen

aurrekontua 7.000.000,00 eurokoa izan da.

Lokalen zaharberritzeari dagokionean, 16 expediente aurkeztu dira ia hamar urteko epean. Kasu honetan, zaharberritzeak balio duenaren %16a ematen zaio jabeari, baldin eta lokala martxan badago, eta %20a berriz, berria bada.

22 komertzio berri

Lokalen jabeek bideratutako laguntzak baino arrakasta handiagoa izan du lokal hauek alokairuan hartu eta bertan aktibitate komertziala jartzeko sortu den programak. 2007an jarri zen martxan. Denbora horretan, 22 komertzio berri zabaldu dira. 130.000,00 euro bideratu dituzte programa honetara. "Lokalen maizterrei, lehenengo urtean alokairuaren %75a ordaintzen zaie, 450,00 euroko mugarekin, bigarren urtean, %50a, 300

euroko mugarekin, eta hirugarren urtean %25a, 150 euroko mugarekin. Laguntza hauen helburua komertzio berriak sustatzea da. Hasierako bide malkartsu hori leuntzeko balio dezake, baina ez negozioa errentagarri egiteko. "Gu ez gara norberak martxan jartzen duen jardueran sartzen, eta ez dugu negozioaren errentagarritasuna bermatzen", argitu du Anjel Uranga gerenteak. Era honetan, zabaldu diren 22 komertzioetatik 3-k jada atearak itxi dituzte. Hala ere, balorazio oso ona egiten dute: "Zabaldu diren 22 horietatik etorkizuneari 12-k martxan jarraituko balute gustura egoteko emaitza izango litzateke", gehitu du Aldazabalek.

Komertzioa biziberritzeko lan asko egin da, baina gehiago dago egiteko. Bide horretan, Erretengibel Alde Zaharreko Dendarien Elkartearekin elkarlanean ari da.. Dendarien eskaera da, lehenengo pisuetan dauden aktibitateak hutsik dauden lokal komertzialetara ekartzea, kaleari itxura polita emate aldera". Izan ere, Alde Zaharrean lokal asko daude hutsik. Arrazoi ezberdinak jarri dituzte Uranga eta Aldazabalek mahai gainean: "Hasteko, hor daukagu komertzio-txikiaren gainbehera. Gero, Alde Zaharreko komertzioaren jabe bat jubilatzen denean ez du erreleborik izaten. Bestalde, lokal hauek txikiak izan ohi dira azalera, eta aparkaleku gutxi izateak ere eragina du". Baina aldi berean, Alde Zaharrek abantailak ere eskaintzen ditu: "Pisutsuena eremuaren identifikazioa eta izaera da.

Plaza Berriko 2. eraikuntza birgaitu nahi da bertan 16 etxebizitza eraikiz.



Komertzio indartsuak eta tradizio handikoak daude bertan, eta horrek balioa ematen dio". Alde hau kontutan hartu, eta apustua egin behar dela uste dute Erretengibelen. Bereziki, artisauek eta profesionalak ere ireri nahi dizkiete atearak.

Etxebizitza hutsei irtenbidea ematen

Diru-laguntzak kudeatzeaz arduratzen den elkarte baina zerbait gehiago da Erretengibel. Udaleko hirigintza sailarekin elkarlanean, Alde Zaharra biziberritzeko agente aktibo batean bilakatu da, legegintzaldi honetan egin diren aldaketak batzuen ondorioz. Eragiletza horren adibidea da Rc2 eremuko hiri berrikuntzan izan duen parte hartzea. "Eraitsitako eraikinean bizi ziren bizilagunei etxebizitza berri bat eman zitzaizkien zaharrentzako truke. Horretarako, Plaza Berriko 1. zenbakia (Toriles) birgaitu zen". Aurtengo udan bota diren Laborde y Labayen eta honen ondoko eraikuntzak eskuratu zituzten etxebizitza berriei lekua egiteko. Aurrerantzean ere, aktibitate honetan jarraituko dute. "Plaza Berriko 2. eraikuntza birgaitu nahi da bertan 16 etxebizitza eraikiz. Beste horrenbeste egiteko asmoa dago Arostegieta kaleko 4. eraikuntzan ere. Azken honetan, 4 etxebizitza egokituko dira". Promotore pribatuek ez





dute Alde Zaharreko eraikuntzak zaharbertzako interesik, lan hauek egiteko aurrekontu potoloak behar baitira. Hau ikusirik eurek hartu dute ekimena.

Egun, Alde Zaharreko etxebizitzaren %15etik %18ra daude hutsik. Hauetariko asko hutsik daude gutxieneko bizigarri-

tasun baldintzak betetzen ez dituztelako. "Eraikuntzaren egoera kaxkarra ikusirik, jabeek ez dute etxebizitza berritzerik nahi izaten, eta zail da horrela etxe hutsei irtenbidea ematea". Bestelako arrazoiak ere badaude noski. Esaterako, jendeak auzo berrietara joateko duen joera.

Alde Zaharra bere osotasunean berpizteko ekintzan burubelarri sarturik dago Errentegibel zerbitzua. Aipatutako zereginez gain, badu beste lan potolo bat esku artean: Alde Zaharreko Plan Berezia. Hau lantzen ari dira orain. Legegingintzaldi honetan izango dugu plan honen berri.

Xirimiri

Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA



Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
blogspot.com



SANTAMARIA



Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantzirako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610 • TOLOSA

ibarra
Argi-Lanak

**Argi lanak, antenak
eta portero automatikoak**

Apaiz-Erreka, 5
20400 IBARRA
Tel.: 943 675 878
Faxa: 943 674 181
Mobila: 639 72 42 60

**Martin
Eceizabarrena**

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822



Kalebeherako jolas parkean atondu dute haur-eskola behin behinekoa da. Behin betiko kokalekua kultur etxearen ondoko eremua izango da ziurrenik

Alegiako haur-eskola herriko txiki

Azaroaren 2an irekiko ditu bere ateak Alegiako haur-eskolak. Azkenean. Ez baita atzo goizeko kontua herrian haur-eskola martxan jartzearena. Urte batzuk badira lehen asmo eta proiektuek argia ikusi zutenetik, baina azaleratu bezain pronto aurkitu zituzten bidean oztopo eta trabak, alde batekoak ez baziren bestekoak, eta orain arte ezinezkoa izan da Alegiako txikiarentzat txoko bat egokitzea. Badirudi, ordea, bide luze eta malkartsua bere azken metroetan dela.

Amaia Goikoetxea

“Askotan gertatzen da data bat ezarri eta arrazoi ezberdinak tarteko epeak bete ezinik gertatzea. Horregatik, zuhurtziaz jokatuta nahi izan dugu orainoan, eta azaroaren 2an jarri dugu haur-eskolaren irekiera eguna. Gauzak ondo joanez gero lehenago ireki badaiteke, hobe, baina hitzartutako data azaroaren 2a da”.

Horixe iragarri zigun irailaren amaieran Alegiako alkate Aitor Sarasolak, eta beraz, urriaren erdia joan zaigula kontuan izanda, egun batetik bestera irekiko ditu bere ateak Alegiako haur-eskolak, momentuz, sei umerekin. “Irailaren bigarren hamabostaldian matrikula epea berriz ere zabalik egon da, eta horiek azaroan, abenduan edo urtarrilean hasiko lirateke”, argitu zigun Aitorrek.

Haurreskolak Patzuergoak kudeatuko duen 0 eta 2 urte bitarteko haur-eskola publikoa izango da Alegiako; langileen kontratazioa eta gainontzeko baliabideak haren esku egongo dira, beraz. “Bi irakasle izendatuta daude, bat lanegun osoz arituko da eta bestea lanegun erdiz”, kontatu zigun alkateak. Haur-eskola goizeko 7:30etan irekiko da eta arratsaldeko 18:30etan itxi. Printzipioz, 0-1 urte bitarteko haurrek gela batean egon beharko lukete, eta 1-2 urte bitartekoek beste batean. Esan bezala, ordea, Alegiako haur-eskolan momentuz 6 haur hasiko dira, eta horregatik, guztiak gela bakar batean egon daitezen onartu du Patzuergoak. Hori bai, gelak handia izan beharko du.

“8 haurrentzako gela prestatu da; hortaz, orain hasiko diren 6 horiek tokia soberan izango dute. Gainera, jakinarazi digute aurreikusitako 8 haur horiek baino bizpahiru gehigo ere sar daitezkeela bertan, beraz, alde horretatik ez legoke arazorik”.

Orain arte, Alegiako haurrak inguruko herrietako haur-eskuletara joaten ziren bezala, pentsatzekoa da orain Alegiakoak beste herrietakoak ere hartu ditzakeela. “Matrikula betetzekoan zein herritako haur-eskola nahi zenukeen aukera dezakezu. Hori bai, eskaintako plazak baino jende gehiagok emango balu izena, patzuergoak berak baremo batzuk ezarriak ditu eta horren arabera erabakiko du lehentasuna nori eman. “Baina ondoko herrietakoek ere izan dezakete hona etortzeko aukera, noski”, zioen Aitorrek. Haurreskolak Patzuergoak honako irizpide hauek erabiliko ditu aukeraketa egiterako garaian: famili-unitatearen urteko errenta, bizilekuaren gertutasuna, anai-arrebak haur-eskolan matrikulatuta egotea edo aitak, amak edo legezko tutoreak haur-eskolan lan egitea, familia ugariako kidea izatea, minusbaliotasuna, gurasoen edo legezko tutorearen lan-egoera eta haurren bizilekua udalerrian.

Behin-behineko kokalekua

Kalebeherako jolasparkean dago kokaturik Alegiako haur-eskola; ez, ordea, luzarorako. “Haur-eskola 2009-2010 ikasturtean martxan jartzea erabaki genuen. Baina noski, hasieran



enei atea zabaltzeko gertu


batean ezin genuen behin-betikoa eraikina egingo den tokian kokatu, hura eraiki egin behar baita. Horregatik, jolasparkea urtebeterako toki egokia izan zitekeela iruditu zitzaigun”, aipatu zigun alkateak. Eta behin-behinekora eraikina non? Bada, badi-rudi, horretarako aukera gehien dituen tokia kultur etxearen kanpoaldean gimnasioaren eskuinetara geratzen den lurzoru hori dela. “Leku aproposa iruditzen zaigu haur-eskolarentzat, San Juan eskolarekin eta Aralar Institutuarekin ere lotura zuzena dauka... Hori bai, umeek euren espazio behar dute eta beraz, ibilgailuentzako mugatu egin beharko litzateke gune hori. Aukera hori nahiko definituta daukagu, eta datorren ikasturterako eraikina amaituta izatea aurreikusten dugu. Azken erabakia hartu eta lehenbailehen martxan jartzea komeni zaigu.

Patzuergoarekin ere horixe dugu hitz eginda. Gure asmoa behin-behinekora egoera hau urtebete bakarrik luzatzea da”.

Aldapa eta bihurtune askotako bidea

Aurreko legegaldian sortu zen herrian haur-eskolaren inguruko arazoa. Izan ere, hasierako asmoa Franconi Fundazioaren eraikineko ezker aldeko gunea haur-eskolarentzat egokitzea zen, baina eskaera egin eta ezeko jaso zen. Gero, aipatu Franconi etxearen ondoko partzelan eraikin berri bat egitea proposatu zen. “Proiektu hura, ordea, guretzat ez zen ekonomikoki bideragarria, jaso genezakeen diru-laguntza oso txikia baitzen. Bi solairutako eraikin bat izango zatekeen, behekoan eguneko zentroa eta haur-eskola izango zituzkeena, eta goikoan apartamentu tutelatuak. Diru-laguntza,

ordea, haur-eskolarentzat bakarrik emango ziguketen; eraikinak 600.000 euroko kostua zuen eta 100.000 euro inguru jasoko genituzkeen. Gainera, beste 200.000 euro kostako zatekeen zubia ere egin beharra geneukan, eta asko igoko zitzaigukeen aurrekontua. Horrez gain, beste herri batzuetan apartamentu tutelatuaren esperientzia oso txarra izan zela esan ziguten, asmo hori bertan behera uzteko gomendioa egin ez. Horregatik, beste aukera batzuk aurkitu behar genituela erabaki genuen.

Eta badirudi beste aukera horiek iritsi direla. Esan bezala, datorren azaroaren 2rako dago iragarrita Alegiako behin-behinekora haur-eskolaren irekiera, eta 2010-2011 ikasturterako behin-betikoa eraikina prest eduki nahi luke Udalak. Oker handirik ezean, beraz, laster iritsiko da bide luze eta malkartsuaren amaiera. 

ALDATZ Kristaldegia

Mota guztiako beirak
Bainu eta dekoraziorako
ispiuak
Beirate artistikoak
Dutxa-itxurak

Tel./Faxa: 943 674 845
kristaldatz@euskalnet.net
Pablo Gorosabel, 33 • TOLOSA

Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisotasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

13

BERTSOLARI
TXAPELKETA NAIGUSA
www.txapelketa-naigusa.ez

Urriak 17, larunbata 17:30ean
Kiroleta pilotalekua - UZTARITZE
XABI PERA, AYOR SARRIGI, ERKA LAGORRA
LINA MUÑOZA, BEÑAN GAZTELLAENDI, ANATZ ESTIBALLES

Urriak 18, igandea 17:30ean
Aritzatalde kiroldegia - ZARAUTZ
IVARDE IBARRA, XABIER SAGUIA, IÑER ZUBELDIA
LINA AGUIRRE, OHANNE PEREA, JOSE MUNDURTE



Juan Larrazpu
eraikuntzak, s.l.

- Baserrietako igeltseritza eta egurrezko esturturetan adituak.
- Etxeen berrikuntzak:
- Fatxadak - Teillatuak - Sukaldeak - Baiñu gelak, etab...

Tfnoa: 665 718 966
Jon Arruti (Orio)

Tolosa Bit
Informazioa Gerturatuak

Ordeagailuak eta konputatzaileak
Errega eta periferikoak
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es



Ormazabal familiako lau belaunaldi igaro dira Modestoenea estankoaren barra atzetik

Moxtone, 1900. urtetik anoetar

XX. mende osoan eta milurteko berriaren hastapenean Modestoenea etxeko atekak zabalik mantendu dira. Ormazabal familiako hiru belaunaldietako kideak arduratu dira estankoa, taberna eta denda biltzen zituen guneaz.

Familiako laugarren belaunaldiak orain hartu du lekukoa. Garai berrietara egokitzeke, egoitza zaharra utzi eta kale berean lokal berria ireki du Arantxa Otaegik. Lekuz aldatu da, baina bere aurrekoen izen ona berarekin eramandu du: Moxtone.

Leire Zubeldia

1900. urteko abenduaren 1ean eskuratu zuen Modesto Ormazabalek Anoetan estankoa zabaltzeko lizentzia. Arantxa Otaegiren birraitonak jarri zuen martxan negozioa. Izena ere berak eman zion: "Modestoenea" edo herrian deitu izan dioten bezala, "Moxtone". "Birraitonak papeleran egiten zuen lana. Handik atera eta baserriaz arduratu behar izaten zuen. Estankoan ere aritzen zen, baina nire birraionak laguntzen zion", kontatu du Arantxak. Estankoa, taberna eta denda biltzen zituen gela etxearen lehenengo solairuan zegoen. Negozioa bertan mantendu da aurtengo irailean lekuz aldatu den arte. "Baina egungo Modestoenea etxea 1936. urtean eraiki zen. Estankoak Modestoenea zaharrean egin zituen bere lehenengo urteak".

Modestok bere alaba Carmen Ormazabali utzi zion estankoaren lizentzia. Honek Izaskun Berasategiri alabari, eman zion gero. "Birraitonaren ondoren, nire amona eta izebarena izan da lizentzia, baina Moxtoneko barra atzean

familiako jende askok egin du lan, nire amak barne". Duela zazpi urte hil zen Arantxaren ama. Orduan utzi zioten taberna eta denda zerbitzua emateari. "Nire izeba Izaskun geratu zen negozioaren kargu. Estankoan horrenbeste izerdi isuri ondoren, lizentziak familian jarraitzea nahi zuen". Birraitonak amonari, amonak izebari, eta izebak ilobarri. Horrela iritsi da estankoaren lizentzia Arantxaren eskuetara. "Aurreko urtea izebaren ondoan pasa nuen ofizioa ikasteko asmoz, eta irailean zabaldu nuen negozioa". Izaskun egunero gerturatzen da estanko berrira ilobarri laguntzeko. "Izebari pena eman dio negozioa lekuz aldatzeak, Moxtone zaharrean pasa baitu bere bizitza osoa. Baina aurrera begiratu beharra dago, eta berak ulertzen du hori", gaineratu du. Arantxak, erronka



rei irekita

bat bezala hartu du bere aurrekoek horrenbeste urtetan mantendutako negozioaren ardura. "Ea Moxtonek martxa onean jarraitzen duen. Ni saiatuko naiz ahalik eta ondoen egiten". Bizitza guztian Moxtoneko bezero izan diren herritarrek gustura hartu dute dendaren leku-aldatzea eta zortea opatu diote jabe berriari.

Herritarren elkargunea

XX. mendearrekin batera estreinatu zen Moxtone. "Garai horretan Anoetan ez zen beste dendarik egongo". Hala uste du Arantxa Otaegik. Izebak kontatzen dizkion pasarteetatik ondorioztatzen du hori. "Nonbait, gure etxean zegoen herriko telefono bakarra. Herrian senitartekoak zituztenek edozein abisu edo ohar emateko gurera deitzen zuten. Izeba eskolatik atera, eta baserriz-baserrera ibiltzen zen enkarguak ematen".

Anoeta nekazari-herri txikia zen orduan. Industrializazioaren ondorioz ordea, j e n d e m o r d o a




1900. urtetik zabalik egon da Moxtone etxeko atea.

etorri zen kanpotik bertan bizitzera. Denda eta ostatu berriak zabaldu ziren orduan, baina Moxtonek herritarren biltokia izaten jarraitu zuen. "Asteazken zehar jende askok bazkaltzen zuten gurean. Batez ere langile-jendea izaten zen. Asteburuetan berriz herritarrek elkartzeko karta-jokoan pasatzeko". Tolosako feriarra joan aurretik ere sartu-irtena egiten zuten askok. "Alkizatik jaisten zirenak, astoa ukuiluan lotu eta Tolosara joateko zapata garbiak janzten zituzten. Nonbait, Alkizatik Anoetara jaisteko lurrezko-bidea zegoen". Ohikoa zen baita ere eguna argitzeaz zegoela gautxoriak bertara inguratzea. "Inguruko herritako festetan parranda bota eta gero, gurean sartzen ziren etxera joan aurretik azkeneko tragoa hartzea". Herritar ugariaren oroitzapenen egoitza da Moxtone.

Etxebizitza eta denda eraikin berean egotean, Ormazabaldurek eguneko edozein ordutan zerbitzatu ohi zituzten bezeroak. "Horrela izan da denda lekuz aldatu dugunera arte", dio Arantxak, "hala ere, jendeak errespetuz jokatu du, izeba dendan bakarrik geratu zenetik batez

ere. Igande edo jai egunetan esaterako inorri ez zitzaion bururatzen etxeko tinbrea jotzea". Baina inork hori egin izan balu, Izaskun Berasategik abegi onez zerbitzatu zuen. Ormazabal familiako borondate hori izan da Arantxaren ustez negozioa 100 urtetik gora osasuntsu mantendu duen osagaia. "Nire birraitonak bazekien jendea erakartzeko. Ez hori bakarrik, Moxtoneko atea beti egon izan dira zabalik. Denak izan dira ongi etorriak, baita bazkari bat, bi edo hiru zorretan zituztenak ere. Batzuk borondate hori beraien onerako baliatu dute, beste batzuk ordea eskuzabaltasun hori eskertzen jakin dute".

Negozioa mantentzeaz gain, estankoen lizentzia bere ondorengo bati uztea gustatuko litzaioke Arantxa Otaegiri. Hori ordea ez dago bere esku, eta neurri batean, ezta bere seme-alaben esku ere. "Nire ustez, tabakoaren salmenta liberalizatu egingo da. Hau gertatzen bada, estankoen amaiera gertatuko da". Bien bitartean, Moxtone berriko atea zabalik egongo dira 1900. urtetik hona egon diren bezala. Hori bai, komertzio ordutegiaren barruan. 

ZALBIDE
Tolosa Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.


Zalbide baseria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

Zumardi

SEGURAS
BILBAO

Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877



J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Xabino San Sebastian

“Txapelketak bertsoariei bidea eman behar die izan duten bilakaera azaltzeko”

Felix Aiestaran

Xabino San Sebastian (Lizartza, 1962) herrikidea gai jartzaile lanetan aritutakoa da. 2004ko Euskal Herriko Bertso Txapelketan antolaketa lanetan ari zenaren berri izan genuen. Jokoa dagoen Txapelketa honetan berriz, antolakuntza buru gisa dihardu. Donostian Ingenieritza Tekniko Ikasketak egin zituen. Beran bi urtez irakasle lanetan aritu ondoren, Lanbide Heziketa arloari lotuta, kooperatiba batean hasi zen lanean; 7 urte eman zituen Madrilen. Esportazioa alorrari eusteko asmoz Arrasatera itzuli zen, eta ingelesa sakondu ondoren Asiako merkatuan aritzen da batez ere. Hitzordua egiteko deitzerakoan Vietnamen zebilen kooperatibaren merkatua zabaltzeko lanetan. Lanpetuta egon arren, bete-betea eutsi dio Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Sustapen taldearen ardura-pean abiatu den Bertso Txapelketaren antolakuntzari.



Nola murgildu zinen bertso munduan?

Lehenik gai jartzaile modura hasi nintzen. Duela hamabost urtetik-edo, Txapelketa ezberdinetako gai jartzaile taldeko partaide izan naiz. Gaur egun Elkartearen Sustapen Taldean nago, eta bere zereginetako bat txapelketa nagusia antolatzea da.

Sustapen Taldeak zein beste zeregin ditu?

Urtero Bertso Eguna antolatzen du urtarrila aldera. Hitzetik Hortzera saioko ildo nagusia iradoki, bideratu eta jarraipena egiten du. Bere lana da hedabide desberdinekin harremanetan egotea ere. Azkenik, gai jartzaile, epaimahai eta abarren lana nola hobetu hausnartzen dugu, plazaz-plazako bertso-gintzaren azterketa egitearekin batera.

Azal ezazu antolatzaile taldearen osaketa...

Herrialdez herrialde, gai jartzaile taldeak, bertsolariak eta epai-mahaia bere ordezkaria izaten du 15-18 laguneko taldea osatuz. Aldiro ez gara denok elkartzen; azpitaldeka funtzionatzen dugu. Nire zeregina antolakuntza talde osoaren traktore lana egitea da. Bertako talde-lana azpimarratu beharra dago.

Zein lokarri lotu behar dira Euskal Herriko Bertso Txapelketa antolatzeko?

Herrialde guztiak ordezkaturiko dituen antolakuntza taldea osatzen da lehenik. Aurreko edizioko txostenak aztertzen dira eginiko akatsak zuzendu ahal izateko. Urtebete lehenago lanean hasten gara. Hasieratik txapelketari helburu

nagusi bat jartzen diogu. Duela lau urteko txapelketari erdal komunitatearengana iristeko xede nagusia jarri zitzaion. Aurtengo txapelketan lau urteotan bertsolariak eginiko eboluzioa azaltzea hartu da helburu nagusizat. Inolako ariketa arrarorik gabe, txapelketak bertsolari bide eman behar die izan duten bilakaera azaltzeko.

Zertan sumatzen da bertsolariaren bilakaera?

Mezua plazaratzeko garaian, gero eta bertso beteagoa egiten da. Betelan gutxiago egiten da. Gero eta mezu finagoak, landuagoak, datoz. Entzuleak bezalaxe bertsolariak ere informazio gehiago maneiatzen dute, gero eta publiko zabaloarengana iristea lortzen da; eta etorkizuna garantizatze aldera-edo, gazteetara ere hurbildu egin gara.

Urriaren 3tik abenduaren 13ra ibilbide luzea dago, ezta?

Hamalau saio daude. Herrialde guztietara iristen saiatu gara. Hiriburuetan egingo dira saioak. Toki guztietara ezin dugu iritsi bertako erakundeekin babesik ez delako sortzen. Horrela, ohiko Uztaritze eta Hendaia saioez aparte, Iparraldean ezin gara gehiago zabaltu. Baina hegoaldeko lau hiriburuetan izango da txapelketa. Aurten, Zestoan abiatu nahi izan dugu txapelketa Uztapideren jaiotzaren mendurrena ospatzeko. Euskaren toki nuklearretatik bertso eskola ugari sortu direnez, eta bertsoaren agerpena gero eta handiagoa denez gune ez euskaldunetan ere, horrexegatik eta BEC-eko aforoagatik, aurten ere bertan bukatuko da txapelketa.

Ez al dira herri txikiagoak baztertua geratu txapelketatik?

Final laurdenetarako jendetza biltzen denez, herri txikiak ez dituzten areto handiak beharrezkoak dira.

go duzue eta. Unibertsitatean azterketa bat zenbakien bidez neurtu al daiteke? Letra, doinua, sortu dion emozioa... Faktore mordo denbora gutxian zenbaki batekin laburbildu



"Aurten txapela sekula baino irekiagoa dago".

Berrogeita hiru bertsolari gehi Andoni Egaña; finalerako zortzi egiteko entresaka handia egin beharra dago... Mañukortak zioen bertso on baten sua ezin dela neurtu. Bertsoaren balioa neurtu al daiteke?

Betiko galdera da eta elkarrean buelta asko eman dizkio. Imanol Lazkanoren esaldia aintzat hartzen dugu; bera elkarteko lehendakari zela, haxe esan zien epaimahai-koei: egin ezazue ahalik eta hobekien, hala ere gaizki egin-

behar du epaileak. Hori zuzena den ez dakit.

Nola osatzen duzue epaimahaia?

Lurraldetasuna aintzat hartzen da eta herrialdeko fasean aritutakoak izan ohi dira. Epaitezko irizpideak adosteko formazio ikastaroak izaten dituzte.

Gai jartzaileak nola aukeratu dira?

Epaimahaikoen modu berean, baina errazagoa da, gai



"Bertso Txapelketa euskara hutsez ekoizten den ekitaldi jendetsuena da"

jartzaileak plazetan arituak dirrelako urte osoan. Beraientzat ez da lau urtean behingo jarduera. Mikrofono aurrean ongi konpondu eta bere modu berritzaile eta egokiekin bertsolariak eroso sentitu behar du. Neronek bizi izan dut: bertso saio ona izan denean, inor ez da gai jartzaileaz gogoratzen, baina saio kaxkarra ateratzen bada "halako gai hura..." hasten da jendea.

Bertsolariak ongi tratatzen al dituzue?

Txapelketan fasez fase egin behar dituzten lanek beraien onspena izan behar dute. Bertsolari gehienak etortzen diren bileretan aztertzen da dena. Txapelketako helburua, alor komunikatiboa, babesleak... Hau guztia talde antolatzaileak erabakitzen du. Hor gerta litezke gorabeherak.

Bertsoaren espektakulua, jendetza, erakusleia... Beharrezkoak al dira bertso txapelketa erraldoiak?

Bertso Txapelketa euskara hutsez ekoizten den ekitaldi jendetsuena da. Eta hau ez da kasualitatez gertatu; bilakaera baten emaitza da. Hainbat kolektiboren lanari esker (bertso eskolak, Bertsozale Elkartea...) bertsozale da hainbeste jende. Bertsolariei ezagutzera emateko aukera eskaintzen diete eta zaleei, aldiz, bertsolaritza gozatzea. Hainbeste kide zaletasun baten ondorioz biltzeak gainera, euskal kultur gintzaren baitan baikortasuna eta ilusioa pizten du eta hori oso garrantzitsua da.

Karteleko nesken zirrara aurpegi bera al du bertsoak?

Hogei kartelen artetik Harman etxeak proposatutako hau aukeratu zen. Bertsoak emozioa sortzen du Bertsolaria eta hartzailearen arteko nolabaiteko zillor-hestea sortzen da.

Aurreko edizioan atzerriko inprobisatzaileak gonbidatu zenuituzten...

Duela urte batzuk iker-taldetik hego Amerika eta estatuko hainbat herrialdeetako inprobisatzaileekin harremana sortu zen. Kanpoko unibertsitateko ikerketa ordezkariak ere etortzen dira. Ipar Amerikako John Folley munduko adituenetakoa ere bertan izaten da. Itzulpen zerbitzua dutenez aho literatura aztertzeko aukera ederra izaten dute eta bere azterketak jasotzen ditugu. Aurtentzen era gonbidatu ditugu.

Bertso Txapelketaren argazkian BBK, Kutxa, VItal eta Bizkaiko Aldundiko ordezkari politikoak agertzean, Xabier Silveirak hitz gogorak bota ditu...

Antolatzaile modura jaso dugu mezua beste asko jasotzen ditugun bezala. Baina Xabierren kritika desenfokatua dago. Silveirak badaki dimensio honetako txapelketa antolatzeko babesleak beharrezkoak direla. Babesle hauek onartu egiten gaituzte, eta gure proiektura etortzea eskertzea da.



Mezua plazaratzeko garaian, gero eta bertso beteagoa giten da.



Finaleko sari banaketetan ordezkari politikoei txistu egitea programa barruan dagoen ezinbesteko ekitaldia dela ematen du... Normalizat har al daiteke?

Ez da Elkarteen gustukoa baina ez dago gure esku hori ekiditea. Guk gonbidatuta etortzen dira eta gure babes osoa dute ordezkari horiek.

Zenbateraino aldatu da entzulegoa?

Bilakaera naturala eman da oro har. Gizartea eta bertsolariak aldatu diren heinean publikoa ere maila berean aldatu da. Bertso Eskoletan egindako lanari esker geroz eta gazte gehiago gerturatzen da saioetara.

Aurtengo txapelketak zer izango du berezkoa?

Aurtentzen txapela sekula baino irekiagoa dago, Andonik oso zail jarriko duen arren. Borroka gogorra izango da. Bestetik bertsolaritza zein osasuntsu dagoen azalduko da: parte hartzen duen bertsolari gazteenak 18 urte ditu; zaharrenek aldiz 48 ditu. Emakumeen ordezkari handia dago. Parte hartzaile guztien maila oso handia denez lehendabiziko saioetatik emanaldi bikainak izaten ari gara. Epaimahaia eta gai jartzaile taldea ere, jende gazte eta ilusionatuak osatzen duela erakutsiko dugu.



Txarli Gesteira
Internet erabiltzailea

Atzean geratu dira internet informazio iturri edota denborapasa bezala erabiltzeko garaia. Agur esan diogu ikusle hutsa izateari. Denborapasa eta informazio iturria izateaz gain, komunikaziorako tresna ere bada internet. Pertsonen arteko komunikazioa gauzatu eta bermatzen duen tresna. Erabiltzaileok edukiak sor ditzakegu, eta edukiak partekatzeko teknologiak ere sortu dira (blogak, sare sozialak, argazki-bideo partekatzeko guneak...). Erabiltzaileok hitza dugu. Internet, informazio eta ezagutza kolektiboaren espazioa izatera pasatu da. Lehen hartu egiten genuen, orain hartu eta eman egin dezakegu.

Komunikaziorako garaia

Gaur estreinatzen dugun Zintzilik atal hau ere, komunikaziorako tresna bat izatea espero dut, atal parte-hartzailea (horrela nahi nuke behintzat), horretarako nere blogera (balerditik, blogsosome.com) egindako ekarpenak, iritziak, kritikak, etab.ek neurri batean gidatuko dute atal berri hau. Atal kolaboratibo bat izango da. Bertan, internet, euskal blogosfera, software librea, sare sozialak, etab izango ditugu mintzagai.

Baino, zer da blog bat, zer da euskal blogosfera?

Blog (edo weblog) bat, ohar, istorio edo artikulua argitaratzen diren Interneteko webgune bat da, debaldekoa izaten da. Blogariak mezuak, egunkari edo bitakora moduan idazten ditu eta hauek kronologikoki argitaratuz doaz bere blogean.

Irakurleak ere, iruzkinak

idatz ditzakete mezuetan, egileak horretarako baimena ematen badu.

Gaur egun, blog bat euskeraz sortzeko hainbat plataforma ditugu, blogari.net, blogak.com, nireblog.com, mundua.com,... Hala ere, erderaz dauden blogak, norberak euskara ditzake. Erderaz ere hainbat plataforma ditugu, blogspot.com, wordpress.com, blogsosome.com, blogia.com, blogger.com, etb.

Blogen harira, eskualdeko blog bat aipatu nahi nuke, Ibarra Udal Liburutegiaren bloga, ibarrakoliburutegia. blogspot.com, bertan liburutegiari buruzko informazioa aurkituko dugu. Orduetgia, agenda, zerbitzuak, etab. Baita gehien mailegatutako libururuak, sinopsiak, nobedadeak, gomendioak, ... Interesgarria, Ibarra liburutegiaren bloga.

Euskal blogosfera berriz, euskaraz idatzitako blogen

“unibertsoa” da. 2001ean sortu zen lehengo bloga, Sustatu.com, eta 2007an euskal blogosfera 5,500 blogek osatzen zuten.

Euskal blogosfera, txikia baina oso aktiboa da. Sarea, itsaso haundi bat da, eta euskaldunok puntu txiki bat gara bertan, eta munduak puntu txiki hori ikus dezan sortu zen, puntueus.org ekimena. Katalunian .CAT domeinuarekin bezela Euskal Herrian .EUS domeinua lortzearen alde lan egiten du elkarte honek, ...“Ikur hori euskara eta euskal kultura sustatzeko tresna izango da eta, hori horrela, .EUS domeinua mundu mailako hizkuntza normalkuntzarako tresnatzat ulertzen dugu: .EUS domeinuak, Interneteko espazio birtualean, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen baitu. Are gehiago, .EUS domeinuak euskara lehen mailako hizkuntza bihurtzen du

Interneten, mundu mailako aitortpena eskainiko baitio eta hura sustatzeko bitarteko eraginkor bihurtuko baita...” dagoeneko 2600 lagunek gure atxekimendua eman diogu ekimen honi, zeren zain zaudete?



Errusiar mendiaren gorabeherak agerian

Jone Uria, Etxahun Lekue eta Iñaki Zelaia. Horiek final laurdenetan orain arte jokaturako 3 saioetako irabazleak, eta beraz finalerdietara sailkatu direnak. Hori eta gehiago eman du txapelketak.

Igotz Alkorta

Zestoan hasi zuen ibilia 2009ko txapelketa nagusiak. Gazteena deitu zitzaion saioa bizia izan zen, eta puntuei begiratuta orain arteko onena. Ezustean Jone Uria algortarra nagusitu zen. Ezustean bai, baina ez merezi gabe. Uriaren freskotasunak berotu zuen saioa lehen bi ofiziotan. 8ko handian Ohiana Bartrarekin aritu zen, eta bikain sartu zen egokitu zitzaion aita paperean. Saioa lehertu zuena, ordea, 8ko txikikoa izan zen. Iñaki Gurrutxagarekin kantatu zuen Uriak. Gurrutxagak festetara Zestoara joatea proposatu ostean, honako erantzuna eman zion Uriak.

Niri ez zaizki gustatzen mutiko giputzak. Hitz egin asko baina gero soso hutsak

Zestoatik nabarmendu beharreko bestea Uxue Alberdiren kartzelako lana izan zen. Ohi duen maisutasunez josi zuen bertsoaldia elgoi-bartarrak. Azkenean Uria



izan zen lehena, Alberdi bigarren eta Gurrutxaga hirugarrena.

Leitza, saio hotza

Eskualdetik gertu izan zuen txapelketak bigarren geldialdia, Urriaren 10ean. jendearen erantzuna bikaina izan zen Leitza ere. Oraingo hontan 30 urteren bueltan dabiltzan bertsolariak izan ziren taula gainean. Ofizioak ez du ordea arrakasta ziurtatzen, eta hotz antzean igaro zen saioa. Lehen bi ariketetan Iñigo Manzisidor, "Mantxi" izan zen giroa berotu zuena. Gaia serioa zen: Xabier

musuka hastea proposatu dio Ainhoak Mantxiri. Hauxe zarrautzarraren lehen bertsoaren amaiera:

Musu eman zaidazu behin eta berriro bi aukerak izango dira positibo

Agirreazaldegire ere ez zen atzera geratu. Hauxe erantzuna:

Baina antzerkitxo hau ona izan dadin neri putzikan behintzat ez zaidazu egin

Lekueren kartzela

Puntu erantzunetan egin zuen behera Leitza saioak. Etxahun Lekue larrabetzuarra izan zen salbatu zen bakarra. 10eko txikian ere, Lekuek eta Mantxik egin zuten saioa nabarmendu zen besteen gainetik. Ariketa honetan poto egin zuen bizkaitarrak, eta horrek puntuetan eragina izan bazuen ere, bertsoaldi ederra eskaini zuten. Hala ere, Leitzaatik nabarmentzeko ariketa

Sukia eta Mantxi akziodun diren enpresan 12 langilek egin dute bere buruaz beste. Hauxe Mantxiren lehen bertsoaren amaiera:

Besteen lana tarteko, ulertu zazu zergatik nagon lutoz, kopeta beltzeko: Jada hamabi gutxigo dauzkat odola zurrupatzeko

8ko txikian berriz, Ainhoa Agirreazaldegirekin aritu zen kantuan. Gaiak honela zioen: Alkoholemia kontrola duzue parez pare eta hori saihesteko, autoa aparkatu eta elkarri



Zuzenean finalerdietarako sailkatuak

Jone Uria	661,5 puntu
Etxahun Lekue	643 puntu
Iñaki Zelaia	643 puntu

bat hautatu beharko bagenu, hori Lekueren kartzelako lana izan zen. 3 bertsoetan asmatu zuen, istorio bat osatuz eta jendearenagana iritsiz. Honela zioen kartzelako gaiak: Miloi pila bat eskaini dizute baina etzaude prest. Hauxe Etxahun Lekueren bertsoa:

*Gizon txiki bat hurreratu zait
lehen atzetik abidan,
eta berakin gelditzeko esan
dit lasai lasai, patxadan.*

*Nik susmo txarra hartu diot bai;
eztakit kontu ona dan:
Miloi pilo bat iladan,
mahai gainera eraman.
Gero esan dit zure lagunak
sala itzazu banan banan.
Munduko urre dana ez da nahiko
lagunak sala ditzadan*

Azkenean ezusterik ez, Etxahun Leku izan zen garaile, eta ondoren geratu ziren hurrenez hurren, Ainhoa Agirreazaldegi eta kartzelan asmatu ez zuen Mantxi.

Arriagan jendetza

Bilboko Arriga antzokikoa izan da orain arteko saioarrik jendetsuena, mila lagunetik gora elkartu ziren bertan. Saio atsegina izan zen, erabat leher-tu ez bazen ere. 8ko handian, Jexux Mari Irazu eta Iñaki Zelaiaen lana nabarmendu zen. Bertsolariaren guraso paperean jarri zituen gai jartzaileak, eta

bi bertsolariak euren amen larruan sartu ziren. Bigarren bertsoan hika erabili zuen larraularrak, jendearen txalo zaparrada bereganatuz. Hauxe bertsoaren amaiera:

*Aizan Maria, gu hemen gauden
barruak seko nahastuta.
Hire semearen erropan ere
ederki naun fijatuta,
nikia ere gaur ekarri din
oso ondo plantxatuta*

8ko txikian ere Irazu izan zen txalotuena, saio ederra egin zuen Maialen Arzallusekin batera. Puntu erantzuntan ere bertso ederrak atera ziren. Seiak aritu ziren egoki ariketa honetan. Adibiderako Iñaki Zelaiaen bigarren puntu erantzuna:

*Telebistan aspaldi
zenbat aldaketa.
Mapa ere aldatu da,
ez da berriketa.
Denok gaude ze ikusi
eta han zer gerta.
Agintaria ere
aldatu da eta*

Arzallus eta Agirre

Bilboko saioko bertsoaldi osoenetako eskaini zuten 10eko txikian Maialen Arzallus eta Amaia Agirrek. Villabonatarrik saioko bigarren zati ona egin zuen eta ariketa hau horren lekuko. Ohean zeuden maitaleen

paperean jarri zituen gaiak.. Arzallusek esperientziarik ez zuela eta laguntza eskatu ostean, honela amaitu zuen bigarren bertsoa Agirrek.

*Mugitu bi behatzak
gora eta behera.
Ta lasai, elkarrekin
iritsiko gera*


Arzallusen erantzuna ere birkaina izan zen. Hauxe amaiera:

*Lokartu egingo naiz
eta zu ere bai.
Bihar goizean ez dut
abujetarik nahi*

Kartzelako lanari dagokionez, ez zen bertsoaldi borobilik entzun. Nabarmendu zen bakararra Julio Soto izan zen, baina honek ere akatsak egin zituen, hankaluzek esaterako. Neskalguna hil zaionaren paperean kantatu zuen.

Hona lehen bertsoaren amaiera.

*Azken aldiaren hustu dut
barra ertzean boltsikoa.
Orain bi baino ez gaude:
ni ta ondoko tipoa.
Penak ito nahi nituen
eta ni nago itoa.*

Azken emaitzak eman zuen nahikoa zeresan. Puntuaketa bertsozale gehienek uste baino baxuagoa izan zen. Iñaki Zelaia izan zen garaile eta ondoren geratu ziren Julio Soto, Maialen Arzallus eta Amaia Agirre. Askok lehen postuan ikusten zuten Maialen Arzallus. Soto bigarren geratu izanak ere harridura eragin zuen, Irazuren postu txarrak bezala. Baina hori ere bada txapelketa. Epaileren lana ez da erraza, eta lehian ateratzen denak onartu beste aukerarik ez du. Hurrengo saioetan geratuko da erabakita finalerdietara sailkatuko den 17kotea. 

Puntuaketaren arabeko sailkapena (11 bertsolari sailkatuko dira)

1	Uxue Alberdi	660 puntu
2	Iñaki Gurrutxaga	642,5 puntu
3	Julio Soto	639,5 puntu
4	Maddalen Arzallus	636,5 puntu
5	Ainhoa Agirreazaldegi	634 puntu
6	Amaia Agirre	631,5 puntu
7	Iñigo Manzidior "Mantxi"	621,5 puntu
8	Ohiana Bartra	612 puntu
9	Xabier Sukia	604 puntu
10	Jexux Mari Irazu	599,5 puntu
11	Ibon Ajouria	598,5 puntu
12	Asier Otamendi	588 puntu
13	Miren Artetxe	583,5 puntu
14	Iñigo Olaetxea	575 puntu
15	Odei Barroso	574,5 puntu

Gipuzkoako Txapelketan lehenengo mailari eutsi dio. Helburu berarekin joango da Euskal Herriko Txapelketara.

Jesus Mari Mujika, Lehen mailako aizkolaria

Irailaren 5an Donostiako Trinitate Plazan jokatu zen Gipuzkoako Lehen Mailako Aizkolaria Txapelketa. Jesus Mari Mujika ibartarrak bosgarren lekuan amaitu zuen bere lana, baina zalantzarik gabe, bera izan zen saioari bizigarritasuna eman ziona. Atzetik aurrera egin zuen bidea, sufritzeko gaitasuna duela erakutsiz. Datorren urtean Gipuzkoako lehenengo mailan jarraituko du. Euskal Herriko Txapelketako kanporaketara ere helburu berarekin joango da.

Leire Zubeldia

Gipuzkoako lehenengo mailari eustea lortu zenuen. Helburu horrekin joan al zinen?

Helburua lehenengo mailan geratzea zen.

Banekien lehia handia izango zela. Olasagasti, Azurmendi eta Txapartegi sailkatuta ikusten nituen. Otaegirekin neukan borroka. Oso ondo zebilen aspaldian. Ni ere ondo sentitzen nintzen; etxean eta, entrenamendu onak eginez. Hala ere ez da berdina etxean edo plazan aritzea: Plazan nerbioak bizitu egiten dira. Gainera, jarri ziguten lana oso luzea zen. Etxean egin ditut tamaina horretako lanak, baina plazan inoiz ere ez. Entrenamenduetan lau aldiz egin nuen plazan jarri ziguten lan hori, eta bi aldietan ez nuen bukatu. Asko sufrituta, baina helburu lortu nuen azkenean.

Lehenengo egurretan atzean geratu arren, Otaegi harrapatu eta aurre hartu zenion...

Lehenengo egurrean ar-begi bat atera zitzaidan. Denbora dexente galdu nuen hor, baina ikusten nuen besteak ez zirela gehiegi urrundu. Erdiparean edo, Otaegi geratu egin zen, eta orduan aprobeztatu nuen.

Euskal Herrikoa Txapelketa noiz jokatu den ez dute zehaztu oraindik. Zer gertatu da?

Bizkaiko Federazioari zegokion Euskal Herrikoa antolatzea, baina atzera egin du. Ez dut ulertzen zergatik. Nafarroako Federazioak hartu du beregain txapelketa. Oraindik ez da ziurra, baina urriaren 26an jokatu liteke Gernikan. Nik nahi dudana lehenbailehen egitea da. Gipuzkoakoa jokatu eta gero, sasoi puntuari eusteko entrenamendu gogorak egiten ari naiz, eta beldurra dut, gehiegi luzatzen bada puntu hori galduko ote dudana.

Euskal Herrikoan ere lehenengo mailari eustea al duzu helburu?

Hamabi edo hamalau aizkolaria izango gara. Azkeneko biak jaisten dira bigarren mailara. Aizkolaria oso onak joango dira, baina maila baxuagokoak ere bai. Horregatik aukerak ikusten ditut, beti ere, Donostian eman nuen maila ematen badut.

Azaroan 8an aizkoara apustu handia izango da Tolosan. Mindegia eta Larretxea aurrez-aurre. Nor ikusten duzu garaile?

Biak ere beteranoak eta aizkolaria bikainak dira. Gazteak zirela

jarritako markak oraindik inork ez ditu hautsi, eta denbora puska batean, ezta inork hautsiko ere. Larretxearekin erakustaldi batzuk egin ditut udan, eta oso ondo ikusi dut. Gerrietatik gaizki ibili ohi da, baina osasunak laguntzen badio, nik bere alde egiten dut apustu.

Zu ikusten al zara horrelako erronka bati aurre egiten?

Ez naiz erronka zalea. Inoiz ez dut horrelakorik egin; gehien bat, egunero hamar orduz lanean aritzen naizelako, eta betarik ez nukeelako edukiko horrelako apustu bat prestatzeko. Etxera nekatuta iristen naiz, ezertarako gogorik gabe. Eskerrak aitari! Berak prestatzen dizkit egurrak, berarikin entrenatzen dut... Berarengatik ez balitz hirugarren mailan nengoke.

Urtarrilean istripu bat izan nuen Urrezko Aizkorarako entrenatzen ari nintzela. Zutikako enborra ebakitzen ari nintzenean, aizkorak eskuetatik alde egin eta hankean ebaki handi bat egin nuen. Ospitalean nengoe-la, aita etorri, eta begiak malkotan zituela, utzi egin behar ote nuen galdetu zidan. Buelta asko eman nizkion kontuari. Azkenean erabaki bat hartu nuen: lehenengo mailan jarraitzeko gai nintzela erakutsi nahi nion. Hiru hilabetez egon nintzen geldirik. Alta emandakoan gogor hasi nintzen entrenatzen. Uste dut horregatik hobetu dudala horrenbeste. Oso gustura nago, eta aita, zer esanik ez!





VI. Euskal Kirolaren Eguna

Gure kirola, Tolosatik mundura

Nolako izan da EKFB-k 2002an sortu zenetik gaur arte egin duen bidea?

Federazioek, 14/1998 Euskadiko Kirol Legeari jarraituz, 2002an jarri zuten abian elkarre haur. Hasieran ez bezala une honetan Euskadiko federazio guztiak barruan dira. Gure herrian praktikatzen diren kirol modalitate guztiak federazioak batzen ditu elkarrekin bere baitan. Hasierako asmoak betetzen joan dira, eta egun, eus-

Euskal kirola indartu eta bere praktika mundu mailan zabaltzea. Helmuga hori du EKFB (Euskal Kirol Federazioen Batasuna) elkarrekin. Horra iristeko bidean, lagungarria da euskal kirolak praktikatu eta erakusten diren jai handi bat ospatzea. Jai hori, Euskal Kirolaren Eguna da. Aurten seigarren edizioa izango du, eta Tolosan ospatuko da, Usabal Kiroldegia inguruan zehatz-mehatz. Jaiaz eta elkarrekin hitz egin digu Jose Ramon Garai, EKFB-ko zuzendariak.

kal kirola bultzatzeko eta federazioentzako, tresna lagungarri bihurtu gara. Hau dena, federazioekin batera egin dugu. Gure elkarrekin ez dator inor ordezkatzera, laguntzera baizik. Horregatik elkarlanaren garrantzia.

Euskal Kirol Federazioen batasun bezala, zein da zuen helburua?

Gure helburuak legez ezarrita daude: euskal kirola bultzatzea eta kirolaren praktika zabaltzea, gure kirolak indartzea, euskal kirolaren presentzia mundu mailan bermatzea, administrazioari laguntza eta aholkularitza luzatzea. Euskadiko federazioen eginkizunetarako mesedegarri izango dituzten tresna amankomunak abian jartzea eta kirol federatua indartzea.

Zuen eginbeharra da euskal kirolen defentsa eta promozioa egitea. Alor horretan, zein lan egin duzue?

Gaur egungo kirolaren globalizazioak ataka gorrian jartzen ditu herri txikiak kirol propioak. Horregatik federazioetatik eta administrazioetatik egiten den eta egin behar den lana ez ezik, gure elkarrekin ere bide horretan lagundu nahi du.

Zenbat Federazio daude Batasunean?

Une honetan indarrean dauden guztiak, hau da, 49 daude. Ikaragarri poztan gaitu guztiak gurekin bat egitea. Elkarrekin eraginkortasunaren seinale, dudarik ez.

Urtero hainbat ekintza egiten dituzue. Tarterean, Euskal Kirolaren Eguna dago. Zertara dator ekintza hau?

Euskal kirola eta kirolaren praktika indartzeko bidean jai handi bat egiteak lagundu egiten du. Bestalde, hainbat kirolen erakuslehiu bihurtzen da egun hau. Oso gutxi ezagutzen

diren kirol modalitateak ere jendearean jartzeko aukera ematen du egun honek. Federazioetako lanaren fruituak ikusteko eta Tolosako herritarrek gozatzeko eguna ere bada; ondo pasatzeko kirola eginez zein kirola ikusiz.

Aurten Tolosan ospatuko da urriaren 25ean. Zer prestatu duzue egun horretarako?

Hainbat ekintza prestatu dugu 11:00etatik 15:00etara. Gehien bat familiei eta gazteei zuzenduta daude. Besteak beste, Euskadiko txapelketa ofizialak izango ditugu ikusgai, tartean, lehen mailako aizkolarien Euskadiko Txapelketako finala. Hala ere, guztiok parte hartzeko hainbat ekintza egongo da: hipika, surf taula mekanikoa, pilota tailerra, arku tiroketa, rokodromoak, xakea, puzgarriak... Bestalde, euskal selekzio batzuek ere erakustaldiak egongo dituzte. Hartara, honako kirolak izango ditugu ikusgai: taekwondo, urpeko ekintzak, kayak poloa, badmintona, errugbia, boxeoa, halterofilia, kirol egokitua, padela, judoa etab. Goiza ondo amaitzeko, agintariek oroitarria jarriko dute euskal federazio zein selekzioen omenez. Aipatu, erakustaldietako bi larunbatean, hilak 24, izango direla: gimnasia erritmikoa eta areto futbola.

irakurri entzun Ikusi



Orbeatarrak II:
Haragiaren gauak eta egunak
Joan Mari Irigoien

"Bestea da mundua" liburuari jarraipena emanez, Orbeatarraktrilogiako bigarren liburua da. Ziurrenik bere ia 1.000 orriengatik egin da nabarmena, baina liburu honetan, XX. mende hasieran kokatutako istorio bizia da kontatzen dena. Berau irakurtzeak ez du ahaleginik eskatzen; atseginez irakurtzen da.

Hegazkadak dakar ekaitza Malenkonia

Gogoz egindako lanaren emaitza dugu disko hau. Tximeletaren efektoa bezala, beraien eskaintza txikiak guregan efektoren bat sortzea espero dute, tximeletaren hegazkadak ekaitza sortzen duen modura. 10 abestiz osatua dago eta bertan teklatura, gitarrak, bateria, bibolina eta saxofoia uztartzen dira beraien influentzia eklektikoekin nahastuta. Gainera, web orritik jeisteko aukera ematen digute: www.malenkonia.com.

Zorion perfektua
Javi Elortegi

Anjel Lertxundik idatzitako nobelan oinarritutako filmea da. Protagonista, Ane Igartiburu, piano ikasketak egiten ari da, baina istripu baten ondorioz porrot egingo du ikasketetan. Hasi berri duen harreman sentimentalak ere mingarri egingo zaio. Ezintasun guzti honek lotura izango du gaztea zela ikusi zuen atentatuarekin.

Urriaren 16tik azaroaren 6ra arteko hitzorduak

Erakusketak

Urriak 31ra arte
Aranburu Jauregia

- Iñigo Altolagirrerren pintura erakusketa.

Azaroaren 14ra arte
Aranburu Jauregia

- Natxo Barberenaren pintura erakusketa.

Zine Forum

Urriak 22 – Leidor

- Paranoid park filmea. 19.45 eta 21:45.

Zinea Leidorren

Urriak 16

- Gordos. 22:30.

Urriak 18

- School Rock Band. 17:00. Gordos 19.30 eta 22:00.

Urriak 19

- Gordos. 20:30.

Urriak 23

- Agora. 22:30

Urriak 24

- Agora. 19:30 eta 22:30.

Urriak 25

- El mundo de los perdidos. 17:00. Agora. 19:30 eta 22:00.

Urriak 26

- Agora. 20:30.

Hitzaldiak

Kultur Etxea

- Urriak 17: Haur minbiziari arreta osoari buruzko jardunaldiak Aspanovas ekarteak antolatuta. 10:30 – 13:30.
- Urriak 30: Aiser Izagirrerren hitzaldia Aiz Orratz/Veleta elkartearen 75. urteurrena ospatzeko.



Urriak 30 – San Blas piko elkartean

Pablo Cormenzana venezuelarraren hitzaldia, Venezuela eta Latino Amerikako iraultzari buruz, 19:00etan.



Musika

Bonberenea

- Urriak 16: Lor eta Sei urte. 22:30.



- Urriak 17. Inoren ero ni. 22:30.

- Urriak 23: Sixty sexers eta On Benito. 22:30.

- Urriak 24: Bonberenea 9. skate festa

- Urriak 30: Señor no 22:30.



- Urriak 31: Kerobia 22:30.

Zerkausia

- Urriak 17: Tolosako musika bandaren udazkeneko kontzertua. 19:30.

Leidor

- Urriak 23: Leidor Sessions. Bide Ertzean musika taldeko DVDaren proiektzioa. 20:30.



Tolosaldean IKASTN

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Tolosaldeko Ikaskuntzako Bitartekotza Zerbitzutik Ongi etorri guztioi 2009-2010 ikasturtera.
Ikasturte berriari begira, eskualdeko prestakuntza eskaintza erakargarria ezagutu nahi baduzu, informazio osoa "clik" batean lor dezakezu:

<http://www.ikastn.com>

Ikastaroaren izena	Hasiara data	Ordu Kopurua
Planoen interpretazioa	09/10/26	50
Galdaragintzako eta egituretako planoen interpretazioa	09/10/26	60
Entsegu suntsitzaileak eta entsegu ez-suntsitzaileak	09/10/26	40
Photoshop (oinarrizkoa)	09/10/27	30
Word	09/11/02	20
Elektrodo estali bidezko topekako soldadura	09/11/02	80
Datu baseen diseinua (Access hastapena eta aurreratua)	09/11/02	50
Oinarriko automatismo programagarriak (PLC-Siemens)	09/11/02	35
Ekoiuzpen gaitasuna	09/11/02	50
Makina elektriko birakorrak (harilketak)	09/11/03	30
Mendekotasuna duten pertsona nagusiak zaintzeko ikastaroa	09/11/17	12
Excel	09/11/18	20

Bertsolaritza

Urriak 24 – Iurre Elkartea

- Bertso afaria: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Anjel Mari Peñagarikanorekin.

IX. Mus Txapelketa Azkarra

Azaroak 14

Beotibar pilotalekua

- Beotibar Kafetegiak antolatuta mus txapelketa sari potoloekin. 16:30.

San Esteban auzoko XXII. kultur astea

Urriak 17:

16:00; altxorraren bila. 16:00; Mus Txapelketa. 16:30; Haur-jolasak. 16:30; Zaldi gurdian paseoa auzotik. 18:00; Buruhandiak. 19:00; Txokolate Jana. 00:00; Makulu Ken taldearen kontzertua. Ondoren Rock and Roll, Break Beat eta Brum and Bass gaua Jokin eta Gorkitaren eskutik.

-Urriak 18:

09:00; Diana Herriko txistulariekin. 10:00; Trikitixa auzoko baserrietan. 11:00; Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan. 12:00; Toka txapelketa auzoko txarangak alaituta. 14:00; Auzoko babarrun jatea.

Goardiako farmaziak

Ostirala, 16

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Larunbata, 17

Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Igandea, 18

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Astelehena, 19

Ugarte M^aT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Asteartea, 20

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Asteazkena, 21

Olarreaga J.
(Korreo kalea, 2)
Tolosa

Osteguna, 22

Morant R.
(Zabalarreta, 1)
Tolosa

Ostirala, 23

Bronte C.
(Korreo kalea 20)
Tolosa

Larunbata, 24

Olarreaga M.
(Martin J. Iraola, 10)
Tolosa

Igandea, 25

Azpiroz L.
(Amaroz 9)
Tolosa

Astelehena, 26

Iturrioz I.
(Euskal Herria, 3)
Ibarra

Asteartea, 27

Ugarte M^aT.
Euskal Herria, 46
Ibarra

Asteazkena, 28

Echeveste Jesus M.
(Gernikako arbola, 3)
Tolosa

Osteguna, 29

Santamaria I.
(Nafarroa etorb. 2)
Tolosa

Ostirala, 30

Tolosa M^a Isabel
(Nagusia, 7)
Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(Iarrialdia)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	Iurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdia, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, Iarriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228



SANTA LUZIA GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA



Vicente Errotuloak

Mugikorra: 609 15 65 08
Laskibar bailara 25 ■ Tel. 943 690294
■ Irura ■ Faxe. 943 694291
rotulosvicente@Jel.es

Beatriz

Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoio nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Muxutruk

Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesional-tasuna. Karlos, 680 983 527
- Hortz protesikoa eskaintzen da laborategian edo auxiliari lanetan aritzeko. 671 44 66 15

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m2.. 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

Salgai

- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699 806 031
- Artzai txakurra salgai 617 863 669
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Lander trakorea (32 zaldi) eta Renault Kangoo (60.000 km) salgai 617 863 669
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- kangoo bat salgai (70.000 km) Montesa motoa salgai. 617 863 669
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinstxer arrazakoak). 645 703 634
- Haur jaio berri batentzat behar diren gauza gehienak salgai (aulkiak, hamaka, seaska,...). 653 733 675

Horoskopoa

Urriaren 16tik azaroaren 6ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Hilabete hauetan nekatu xamar zabil-tza. Nekeari aurre egiteko jarrera egi ki bat hartzea da irtenbidea. Unean uneko bizitzeko, momentua aprobetxatzeko ahalegina egin behar duzu. Horrela errazagoa izango da.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Besteen lekuan jartzeak inguruko en egoera hobeto ulertzen lagunduko li-zuke. Izan ere, bada pertsona bat zure ulermenaren zain dagoena. Gainera, baliteke frogatzea zure adiski-detasun maila neurtzeko.



sagitarium

Azaroak 23-Abenduak 21
Herrietako festa guztiak amaitu dira. Ez litzazuke gaizki etorriko gorputz garbiketa bat egitea. Bestalde, ibili tentuz! Norbait zikin jokatzen ari da zurekin.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Ez dira aste onak zure loarentzako. Zerbaitek kezkatuta edukiko zaitu. Soluzioa ez da lotarako pastillak har-tzea, kezka iturri izango den pertsona horrekin hitz egitea baizik. Kontuz ez-tarriarekin.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Lanean aldaketaren bat izango duzu. Ziurrenik ordu-tegiaren ingurukoa izango da. Aldaketa hori zuri, eta ba-tez ere, zure bikote bizitzari denbora gehiago eskaintzeko baliatu beharko zenuke.



capricornium

Martxoak 21-Apirilak 21
Neurtu zure hitzak eta keinuak. Oso sentibera dago eta min eman diezai-kezu. Aspaldi ez zara lagunekin egon. Beraietaz ahaztu zarela pentsatzen ari dira. Egin imintzio bat gutxienez!



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Orain arte ez bezala, sentituko zara bere aurrean. Berak zurekiko jarrera aldatu duen seinale da hori. Zuk ere aldatuko bazenu, are eta atseginagoa izango litzateke zuen arteko harre-mana.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Asteari aurre egitea gogorra egiten ari zaizu. Horretarako ona da motibazio bat bilatzea: Afaritxo bat, zinemarako plana egitea, ardo goxo botila bat za-baltzea... Helmuga bistan bada erra-zago egiten da bidea.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Hilabete hau ona da ekimenak mar-txan jartzeko. Hasten duzun bide berri horretan zortea zure alde izango duzu. Espero ez duzun bisita izango duzu. Baliatu parentesi hau lanetik deskonektatzeko.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Albiste on bat jasoko duzu, ziurrenik familiaren alorrekoa izango da berria. Baliteke gainera jaiotza baten iragar-pena izatea. Bestalde, aholku bat: Pentsatu hitz egin baino lehenago.



scorpio

Urriak 23-Azaroak 22
Diruz larri zabilta eta agineko mina hasi zaizun arren ez duzu dentista-rena joan nahi. Inbertsiorik onena ordea, osasunean egiten dena da. Be-randu baino lehen eskatu hitzordua. Damutuko zara bestela.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Lortu ez duzun horretaz penatuta egon beharrean, hobe atea behin betirako itxi eta beste berri bat za-baltzea. Asteburu hauek bete-beteak izango dituzu. Kontuz, bizitza sozialak ere estresatu egin dezake!



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK · BEILATOKIA · SULABEA

ZERBITZU IRAUNKORRA

902 402 900

www.funerariavascongada.com

tolosa@funerariavascongada.com



BEILATOKIA-ERRAUSTEKO LABEA

Kondeko Aldapa, 5 · 20400 Tolosa · ☎ 943 67 00 40 Faxa: 943 67 07 19



*Etxebarru zein
kalerako lorak.*

Lorategi lanabesak.

*Lora legor eta apain-
dura tresnak.*

Annetxe

LORATEGIA CB

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel.: 943 673 118 -TOLOSA



90 EGUN BERRITZEN
90 EGUNETAN PREZIO HISTORIKOAK



APROBETXATU MOMENTU HISTORIKO
HAU PLAN 2000E-REKIN

SEGURTASUN PLAN OSOA

Zure Citroën berritu ariku osozko aser-
tua, bilabetez interes eta erretiragarri gabe,
gaitera langabetez kobertuta opati.



CITROËN C3 7.300€*^{ak}

CITROËN C4 HDI 11.600€*^{ak}

CITROËN
XSARA PICASSO HDI 12.800€*^{ak}

GOZATU EZAZU C4, C4 PICASSO
ETA C5 MILLENIUM SERIE BEREZIE-
KIN, SERIEAN DAKARREN MYWAY
NABIGATZAILEAREKIN.

www.citroen.es



CREATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN Jardueña Tolosa.

Konsumo medio 8,7/100 Km / CO2 medio 197 g/Km. C3: 8.446 l / 115/145 C4: 8.484 l / 115/125 Xsara Picasso: 9.07 l / 130/172. PVP (gasolina) C3: 1.1. Beilatoa Tolosa, C4 HDI 90 Beilatoa / Xsara Xsara Picasso HDI 90 Beilatoa. 18 Plan seguru, gaitura, infirmogenetario Plan 2000€ (gaitura, infirmogenetario) eta 2000€ (gaitura, infirmogenetario) berritu ariku osozko aser-tua, bilabetez interes eta erretiragarri gabe, gaitera langabetez kobertuta opati. 2011/11/12-ean bitarteko erretiratu erretiratu gabe erretiratu, 1000€ (gaitura, infirmogenetario) eta 2000€ (gaitura, infirmogenetario) berritu ariku osozko aser-tua, bilabetez interes eta erretiragarri gabe, gaitera langabetez kobertuta opati. 2011/11/12-ean bitarteko erretiratu erretiratu gabe erretiratu, 1000€ (gaitura, infirmogenetario) eta 2000€ (gaitura, infirmogenetario) berritu ariku osozko aser-tua, bilabetez interes eta erretiragarri gabe, gaitera langabetez kobertuta opati.

IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIA GUNEA Z/G TEL: 943 65 18 42 ANOETA/TOLOSA

**GURE WEB GUNEARI BIZITASUNA
FALTA OMEN ZITZAION, ETA JON
SARTU DUGU BARRUAN.**

gazte kutxa

Aholkulari pertsonala,
bizi-bizi eta aurrez aurre,
behar duzun guztirako.

Telefono, bideokonferentzia
edo txat bidez.

10etatik 10etara
bezero izan nahiz ez
gaztekutxa.net

zer nahi duzu bihar?